

“Oso gustatu zait bizitza”

VICENT ANDRÉS ESTELLÉS
(Burjassot, Valentzia 1924 - 1993)

Hautaketa: Héctor Arnau eta G. M.
Oharra eta itzulpenak: Gerardo Markuleta

Laster batean kaleratuko da, *Estellés euskaraz* izenburupean, Vicent Andrés Estellés Valentzia aldeko idazlearen poema antologia bat. Ediciones La Tapadera izeneko argitaletxe valentziar txiki batek argitaratuko du, edizio elebidunean. Antologiako poema-hautaketa Héctor Arnauk egina da, guk bilduma hartatik hamar baino ez dugu hona ekarri, liburuaren –eta itzulpenaren– erakusgarri. Mila esker La Tapaderari eta H. Arnauri testuok SENEZen argitaratzeko baimena emategatik.

Vicent Andrés Estellés (Burjassot, l’Horta, 1924 - Valentzia, 1993). Kazetaria lanbidez, eta poeta bizibidez. Haren gainean informazio bila hasiz gero, berehala datozkigun bi topiko, ez horregatik gezur: Valentziako poesia garaikidearen berritzaile nagusia, eta Valentziak Ausiàs March-en garaitik eman duen poetarik onena.

Gurasoak okinak zituen; haiekin ikasle hasi zen lanean, gero urregile batekin, eta gero mekanografo. Bekadun ikasi zuen kazetaritza, eta Valentziako “Las Provincias” egunkarian egin zuen lan urtetan. Laster hasi zen poesia argitaratzen. “Burjassoteko ezkuizkribuak” izeneko *corpus* batetik ateratzen zituen lehen poema liburu txiki eta gaizki zabalduak, etengabeko berregite pro-

zesu batean. Hizlaurko lan batzuk ere idatzi zituen: eleberriak, antzezlanak eta memoria-liburuak.

Sari handiak jaso zituen: Lletra d’Or (1974) eta Crítica Serra d’Or (1975), Premi d’Honor de les Lletres Catalanes (1978) eta Premi de les Lletres Valencianes (1984). Hainbat kantarik haren testuak musikatu zituzten, Maria del Mar Bonet eta Ovidi Montllor-ek besteak beste.

Emari ugariko poeta izan zen eta, haren lanak sailkatzeko, poesia zibila (*Llibre de Meravelles*, gerra zibilaren ikuspegi tetrikoa), egunerokotasunaren poesia (*Horacianes*) eta poesia existentzialista (poema autobiografikoak edo sexualitatezkoak: *Pedres de*

foc) bereizi ohi dira. Estellésen lanak, ordea, gainezka egiten du tiradera guztietatik.

Heriotza eta sexua aipatzen dira bere lan poetikoaren ardatz nagusien gisara, baina azalpen hotzegia da dudarik gabe. Espainiako gerra zibilak 12 urterekin harrapatu zuen; hori baino lehenago ere, izan zuen gertuko familian bortxaz hildakorik. Eten-gabea da heriotzaren presentzia bere lanetan, baina ez beti modu tragikoan edo historikoan (“goizean goiz heltzen ziren kamioiak” poeman, adibidez, gerra osteko lurperatze masiboez). Estellésen hitzak dira:

“Heriotza guztiak dira tristeak. Badago, bestalde, heriotzaren edertasun ulertezina. Gai hau erabakita zetorren nire alaba hil baino askoz lehenagotik; zeren heriotza, dolu, giro batean hazi bainaiz ni... Gainera, ez dago ahazterik, gerrako eta posgerrako hildako pila haiek. Halaxeko mundu batean hazi naiz, eta lehenago sumintzeko arrazoi bazitzaidan ere, orain ulertze mingarri baterako arrazoi zaizkit, edo txundidurarako, edo ulertu ezin erradikal baterako.”

Mediterraneo aldeko herri kulturatik edaten duen ikuspuntu piermintsuak umore beltzezko kontakizun laburrak sortzeko bidea ematen dio, umore batzuetan apur bat prototipikoa (itsuaren figura, “Zehatz ez dakigu...” izenekoa; herriko medikua-rena, “Banan-banan altxatu ziren hildakoa-ak”-en).

Lirikotasun samurrean ere trebe da, baina sarri gustuko du egunerokotasunaren aipamen gordin, lizun, tabu, irreberentea txertatzea edo, areago, ireki eta zabal erakustea. Sarri, mundu greko-latinoaren de-

koratu eta pertsonaiek lagundurik. Oso estilo adierazkorra erabiltzen du, erregistro ezberdinak nahasiz, batzuetan herri hizkera nagusi. Katalan estandarretik itzultzen ohi-tuarentzat, arreta puntu gehigarri bat eskatzen du Estellésen valentzierak.

Urtetan idazle katalanen elkarteburu izan den Jaume Pérez Muntaner-en hitz batzuk, amaitzeko: “Estellésen poesia dialektoa da, adierazpen kolokiala, hizkuntza goitiko, hitz zuzen eta amarrurik gabekoaren garaipena, narratibitatea, adiskide arteko solasa edo bakarrizketa luze eta kontraesan-korra, parodia, bere buruari buruzko gogota, edo bere herriari buruzkoa edo inguruko errealitatearen litezkeen alderdi guztiei buruzkoa; gauza txikiak dira, eta eguneroko nekeak, “gizaki arrunt eta normalaren eguneroko kezka” dei genezakeena. Baina ez utzi ziria sartzen erretorika umil eta txundigarri horren arintasunari; soiltasun horren azpian lirismo sakona dago, bertso-lerro guztiak bustitzen dituen; gauza kuttun, samur eta elementalen xarma eta oroitzapena. Kontrastea, alde batetik, notario baten egonarriz jasotzen duen errealitate zikin eta tristem; bestetik, lore edo tximista baten modura sortzen den irudia; eta nahasketa: hitz baldar eta zakarra, adjektibo kultu eta sotilarekin, edo konparazio edo literatur erreferentziarekin.”

Irakurri dutenen artean konplize-irribarre batez aipatu ohi den poeta da Estellés, eta hori edonorentzat plazer –eta harentzat, ohore– ordekaezina da.

GERARDO MARKULETA

Zehatz ez dakigu zer gertatu zitzaion. Itsua
gogorturik eraman zuten hilerrira, hilik
bai hilik, esku luzeak gurutzaturik,
nahiz eta inork ezin izan zizkion

begiak itxi, berunezko duroak
jarri bazizkioten ere, oso ohikoa den bezala.
Herrira itzultzean, segizio osoak
negu hartako gorabeherak

komentatzen zituen, basaranak, bularretako hotzeriak,
gauza hutsal edo garrantzitsuak, nahi bada.
Eta baten batek, txiza egitera jiratu zelarik,

itsua ikusi zuen bere etxera poliki itzultzen,
haserre, gabon ere esan gabe,
eta oso gaizki hartu zuten guztiek.

*No es sap ben bé què va passar-hi. L'orb
el varen dur al cementeri, mort
i ben mort, amb les llargues mans creuades,
encara que ningú no va poder*

*tancar-li els ulls, per més que li posaren,
com és ben usual, duros de plom.
En retornar al poble, comentava
tot l'acompanyament les incidències*

*d'aquell hivern, prunyons, pèls de mamella,
coses banals o transcendents, si es vol.
I algú, en girar-se per pixar, va veure*

*l'orb que tornava lentament a casa,
irritat, sense dir-los bona nit,
cosa que va a sentar molt mal a tots.*

Kale zaharretatik, ikuilu usaina lagun,
sartzen zen herrian, ortuetatik zetorrela,
ilunkera aldera, itxura makur, lepoan zakua
zekarren gizona, konkordun edo kuzkurtua,

zaku barruan itotako edo eraildako baten
gorpua zeraman gizona: ez zien sekula gabon esaten
han freskura hartzen edo atun eta piperrauts

ogitarteko bat afaltzen ari ziren jende zintzoei.
Nekez bai nekez, txapel beltzaren azpian,
monumentu edo konkorraren azpian,

ilunpean galtzen zen gizona. Krimen
errezeloa uzten zuen, untxientzako bide bazterretan
ebakitako sasiak zeramatzan gizon hark.

*Pels vells carrers, amb una olor d'estable,
entrava al poble, des de l'horta, allà
boqueta nit, sinistre, l'home del
sac al coll, geperut, o bé encongít,*

*l'home que duia dins el sac el cos
d'un ofegat o assassinat: no deia
mai bona nit a les honestes gents
que prenien la fresca o bé sopaven*

*un entrepà de pimentó amb tonyina.
Penosament, sota la gorra negra,
sota el sinistre monument o gepa,*

*l'home es perdia en la foscor. Deixava
impressió de crim, l'home que duia
brossa per als conills segada als marges.*

Hildakoa, kanpoan hila baitzen,
etxera eraman zuten, mordoka, guztien artean,
eta hilaren beso bat zintzilik geratzen zen,
eta burua beste norbaiten poltsikoan.

Guztien artean zeramaten, arretatsu, hildakoari
arrazoiak emanez pattarrak kalte egin balio bezala,
eta masailezurra dilindan zeraman hildakoak,
eta beste hark betaurrekoak bilatzen zizkion

espartina artean, geranio bat bilatuko balu bezala
hildakoari belarri batean jartzeko,
hori balitz bezala eskas zuen xehetasuna.

Atea jo, emazteak ireki, eta ate ondoko
eserlekuan utzi zioten, eta artean
baten batek esan zuen: Ez gara deus ere.

*El mort, que no s'havia mort en casa,
el dugueren a casa, a grapats, tots,
i es despenjava un braç del mort, i el cap
se'l ficava dins la butxaca l'altre.*

*Tots el duien, sol·lícits, raonant-li
como si li hagués sentat mal el conyac,
i mitja barra li penjava al mort,
i aquell que li buscava les ulleres*

*com si buscàs, entre espardenyas, un
gerani per posar-li'l a una orella,
com si fós el detall que li faltava.*

*Tocaren a la porta, obrí la dona
i li'l deixaren en el bancalet,
i encara algú va dir: No som ningú.*

Banan-banan altxatu ziren hildakoak,
isilean, hilobi beteetatik,
eta hilerriko atean bildu ziren,
altzifreen artean ezkutaturik,

eta hildakoen artean kontsignak zebiltzan,
ondo zifraturiko kontsigna subertsiboak,
medikuaren hileta-segizioa noiz helduko
zain zeuden bitartean. Baina medikua,

hilkutxaren barruan, izu-larriz ohartu zen
hilerriaren hurbiltasunaz
eta bezero haien subertsioaz,

eta ostikoka eta ukabilka tapakia hautsi,
eta lasterka hasi zen mahastien artean,
eta ez zen gelditu Nàquera-raino.

*D'un en un se n'isqueren el difunts,
calladament, entre les tombes gràvides,
i es concentraren a la porta del
cementeri, amagant-se entre els xiprers,*

*i circulaven entre els mort consignes,
subversives consignes ben xifrades,
mentre esperaven l'arribada de
l'enterrament del metge. Però el metge,*

*dins el taüt, es va apercebre, amb pànic,
de la proximitat del cementeri
i la subversió d'aquells clients,*

*i amb els peus i amb els punys trencà la tapa
i se n'anà corrents entre les vinyes,
i no parà fins a Nàquera.*

Hila hilkutxaren barruan zen, eta mila
deabruren hotza zegoen, diotenez, eta
bera logura zen eta neke, eta hildakoa
atautan gustura ikusi eta funerariako

gizonak hango konfort belusatua ikusi,
eta jada pentsatzen zuen, oporraldi baten modukoa
errauts-pilatxo baten gisako etorkizun hura,
samurtasun bat, eta gozatzen zen; eta tanpez

albo batera eta bestera so egin, hildakoari
heldu eta mahaiaren azpian ezkutatu zuen
eta bera sartu zen hilkutxan, zoriontsu,

eta zorionak aurpegian argizari kolore
atseginezko eta arkaiko bat ematen zion
kutxa banakako eta eroso hartan.

*Estava el mort dins el taiüt, i feia
un fred de mil dimonis, diuen, i
tenia son i cansament, i veia
el mort a gust en el taiüt i veia*

*el funerari i vellutat confort,
i ja pensava, com unes vacances,
aquell futur de muntonet de cendra,
una tovor, i es delità; i de sobte*

*mirà un costat i l'altre, i agafà
el mort y l'amagà sota la taula
i es va ficar en el taiüt, feliç,*

*i la felicitat li dona al rostre
un complagut i arcaic color de cera
dins el caixó individual i còmode.*

Letra ordaindu beharra baitzuen,
eta areago, esan ohi denez, gorputza ere
oso katoliko ez zeukanez, banketxera jo,
hogei mila pezeta atera eta

etxera heltzean pott egin zuen
apur batean atsedean hartzekotan, eta hil egin zen,
bere luze guztian, eta eskuak jada gurutzaturik.
Ez zen hila jantzi beharrik ere izan

—arduratsua izan baitzen beti gizona—:
ohetik hilkutxara pasa zuten
xehetasunik ez kendu ez erantsi gabe.

Dolu, muki eta kikaratxoan aldia igaro eta,
hamabost egunera atera zuten berriz lurpetik
hogei mila pezetak berreskuratuko bazituzten.

*Com que tenia que pagar la lletra,
i encara que, com diuen, no tenia
molt catòlic el cos, se n'anà al banc,
va traure les vint mil pessetes i*

*en arribar a casa es deixa caure
per descansar un poc, i es va morir,
tan llarg como era, i ja amb les manes creuades.
Ni necessari fou amortallar-lo*

*—car l'home sempre fou considerat—:
des del llit el passaren al caixó
sense posar-li ni llevar-li coma.*

*Passats el dol, els mocs i les tassetes,
als quinze dies el desenterraren
per tal de rescatar les vint mil cales.*

Hileta-igogailuak, metalezko kaxa mutuak,
zurezko kaxa mutuak, ispilu luzangak barrutik,
gora eta behera ari dira, gora eta gero berriz behera,
gauez, goizez, arratsaldez, nekaezinak;
bertikalki igotzen eta bertikalki jaisten dira
gizon-emakumeak, izakiak. Igogailuak lanean
hileta gisako mututasunean, metalezko kaxa tristeak,
zurezko kaxa tristeak, ispilu luze-luzeak barrutik.
Bada jaiotzea, bada heriotza, bada itxarotea, porrota.
Badira igo axolagabe igotzen diren igogailuak, eta jaisten.
Badira ezkutuko mandatuak, badira makinak, kontsignak.
Badira hiltzen diren pertsonak, badira jaiotzen direnak,
badira laranja hondakinak, zapata zolak eta gorotzak
profitatzen dituzten industria arrakastatsuak,
lanean saiatze mutua,
badira gora eta behera dabiltzan igogailuak, hiletak,
barruan hilkutxa bat zutik lau gizon tristeren artean.

*Ascensors funerals, mudes caixes metàl·liques,
mudes caixes de fusta, amb espills allargats,
pugen i baixen, pugen i tornen a baixar
per la nit, pel matí, per la tarda, incansables;
pugen verticalment, baixen verticalment
homes i dones, éssers. Treballen ascensors
mudament funerals, tristes caixes metàl·liques
tristes caixes de fusta, amb uns espills llarguíssims.
Hi ha naixença, hi ha mort, hi ha l'espera, el fracàs.
Hi ha els ascensors qui pugen, indiferents, i baixen.
Hi ha missions ocultes, hi ha màquines, consignes.
Hi ha persones que moren, hi ha persones que naixen,
hi ha pròspères indústries que aprofiten residus
de taronja, de soles de sabata, excrements,
una silenciosa laboriositat.
hi ha els ascensors que pugen i baixen, funerals,
amb un taüt dempeus entre quatre homes tristos.*

goizean goiz heltzen ziren kamioiak
hildako pilak ekartzen zituzten ilunkeran
deskarga tristen zorigaiztoko kargak
ilun maniobratzen zuten gero atzera egiten
ile eta metalezko ahotsak entzuten ziren
konkor erraldoi batzuen itzalek ilun
irekitzen zituzten lurraren ateak lurraren sexua
lurraren ahoa jada prest zegoen guztia
kamioiek hildako pilak jaurtitzen zituzten
eta haien gainean kare pila zabalak
karearen burusiak karearen izarak
karezko kataplastak heriotza ororako
kamioek bata bestearen segidan norik jakin nondik
etorrita erortzen uzten zituzten hildako pilak
zorigaiztoko biolinak doluz zelatan
lur-azpiko hura hildako izengabez beterik zegoen
kamioek alde egiten zuten errepidean aurrera
hildako gehiago kargatuta itzultzen ziren gero
sukarrak harturik deskargatzen zituzten hildako pilak
itsaso aldetik argitasun bat zetorren gora
itxi egiten zen lurra biharamuna arte ihes egiten zuten
kamioiek ihes egiten biolin dolutuek
kea sortzen zen lantegietako ke-hodietatik
sirena hotsak jo eta sartzen ziren langileak
emakumeak merkatura zihoazen erosketak egitera

*de bon matí arribaven els camions que duïen
les tongades dels morts entre dues clarors
les càrregues sinistres de les tristes descàrregues
maniobraven foscos després retrocedien
s'oïen unes veus de pèls i de metalls
ombres d'uns geys enormes obrien foscament
les portes de la terra el sexe de la terra
la boca de la terra ja era tot a punt
els camions soltaven les tongades dels morts
i damunt les tongades extenses de la calç
les mantes de la calç les flassades de calç
cataplasmes de calç per a tota la mort
camions successius venien qui sap d'on
i tots deixaven caure les tongades dels morts
els violins sinistres vigilen endolats
aquell subsòl era tot ple de morts anònims
els camions sortien carretera avant
carregaven més morts retornaven després
febrils descarregaven les tongades de morts
per la banda del mar pujava una claror
es tancava la terra fins l'endemà fugien
els camions fugien violins endolats
sorgia el fum pel fúneral de les fàbriques
sonaven las sirenes i entraven el obrers
les dones se n'anaven a comprar al mercat*

Nolabaiteko bizi grina sentitu dut, labur,
nire izterren eta nire iztaiko
ile triseen artean sentitu baitut
zure atzealde ezta, zure ipurdi hamabi urtekoa.
Jolas bat izan da, hala esaterik badago, inozentea.

Hondartzara joan zara gero, eta sekula
baino bakarrago eta garratzago sentitu naiz.

Nork jakingo ote du sekula Catulusek, gaur,
bizitzaren porrot guztia sentitu duela
eta bakardadean negarrari eman diola,
alferrik, noraezean,
maitasun hutserako eginikoak balira bezalako
begi batzuk, erauzi nahi balitu bezala, eskukatzen zituela,
eta galde egin diela, babesgabe, jankoei,
isilpeko zoria jakin guran,

aurretiaz hil nahian?

Oi noiz izango ote da, noiz izango ote, noiz ote...!

Porrot baten adibideak, ez dut besterik ikusi.
Gainditzen ezin saia naitekeen porrota,
gainditzeko indarrrik ez dudana.

Beti zalantzakor sexu batetik bestera,
haragiaren festak bizi izan ditut bakarrik.

Berandu jakin dut han ez zela besterik.

Baina dagoeneko berandu da nire bizitzan,
piztu dira jada argiak leihotetan.

Kreatura samurra saltoka ikusten dut
itsaso barruan, urarekin jolasti,
eta gorantz somatzen dut beira sentimendu bat,
hauskortasun ozta-ozta igarriak.

Oi noiz izango ote da, noiz izango ote, noiz ote...!

*He sentit, breu, un cert desig de viure,
car he sentit entre les meues cuixes
i el tristos pèls de la meua engonal
el teu dolç cul, el teu cul de dotze anys.
Ha estat un joc, si hom pot dir-ho, innocent.*

*Te n'has anat a la platja després
i m'he sentit més sol i amarg que mai.*

*¿Qui sabrà mai que Catul, aquest dia,
ha sentit tot el fracàs de la vida
i en soledat ha romput en un plor,
inútilment, sense saber què fer,
i s'ha arrapat, com volent arrencar-se'ls,
uns ulls com fets només per a l'amor,
i ha interrogat, molt desvalgut, els déus,
volent saber el secret averany,*

volent morir anticipadament?

Oh quan serà, quan serà, quan serà...!

*Tan sols he vist exemples d'un fracàs
que ja no puc intentar superar,
que ja no tinc forces per superar-lo.*

*Sempre indecís des d'un a l'altre sexe
sols he viscut festivals de la carn.*

Tard, he sabut que n'hi havia més.

*Però és ja tard a la meua existència,
ja s'han encès els llums a les finestres.*

*Mire saltar la tendra criatura
dintre la mar, enjogassada amb l'aigua,
i sent pujar un sentiment de vidre,
fragilitats només endevinades.*

Oh quan serà, quan serà, quan serà...!

EZTEI KANTA

sakoneko plazera, sakoneko onura, sakoneko gauzak!

ohera eraman zaitugu, maltzurrok, algaraka,
eta han etzan gara hirurok, pozarren,
eskukada eta laztanetara amilduak,
hilezin iruditzen zitzaizkigun gozamen hilkorretan.
ezer ez zen lizuna eta guztiaz gozatu gara
eta ez dugu deus utzi biharamunerako,
gerri labur eta gorputz luze, ipurtalde astuna,
hainbatetan egin dute topo gure eskuek,
izter ondoan, bularren biribilean,
sukaturik, leku gordeen bila:
zure belarrietako titiburuetan
bildu dira gure mingainak, grinatsu,
zure garondoan bezala, ile-hauts zirimolan.
aurretik eta atzetik sartu dizugu,
hortz-ikara edo garrasi unibertsal batez,
aldi berean geldiro eta basati
–geldiago atzekoak, pentsatzen dut,
nahiz ziurtatzea ezinezkoa zaidan,
bukaeran ez baita bilera-agirian jaso,
antzeko erritoetan ohikoa denez,
hatz eta esku kartsuz zabaldu dituzun
listuzko laguntzak gora-behera.
oi zure gorputzaren ikara eta festa handia!,
birritan iritsi baita gozamen gailurrera,
min eta plazer oihera artean,
pausoaldi berean hilkor eta erabakitsuz.
ez dakit nondik sentitu ote duzun gozamenik handiena,
irizpenen batean adierazi duzun bezala.
oi gorputz sutsua, oi eromen gero eta handiago!
nork asmatuko ote du esaten sentitzen zenituenak?
oi maitasunezko gorputza, halaxe eramana,
aldi berean, zulo batetik zein bestetik!

sakoneko plazera, sakoneko onura, sakoneko gauzak!

garaitu gaituzu, gehiago nahi baitzenuen
zipriztin haietatik, biok batera,
eta ezin izan dizugu berriz gustua egin,
halaxe esan duzu, hutsegitea seinalatuz,
biok sartu dizugularik aldi berean
eta aldez aurreko hitzarmenik gabe,
bata irten egin da, lehorturik, bestea baino lehen,
eta halaxe ez da dena aldi berekoa gertatu.
ikasle hutsak gara, eta ulerkor izan behar duzu.
gatazka-leku bikoitza izan da zure gorputza,
eta kontrako indar asko borrokatu dira han.
zure gorputza izan da itsumustuko borrokaren,
gatazka suminduaren garaile bakarra
—gerria labur, bularrak gora, ipurtaldea astun,
hasiberri tankerakoa, nahiz haurra egin duzun,
behin besterik izan ez bada ere,
eta ezer ez balitz bezala, hain harroa zenuen—
gu izter-zabal geratu gara, bien bitartean
zuk festa gehiago nahi zenuela,
edo zortzigarrena nahi zenuen beharbada,
eta esku abilez nahi izan gaituzu esnatu,
esku abilez, mingain likitsez
eta txori setatsu baten antzeko oihu berotsuez.
zuloz aldatu dugu aldi berean,
atsegin handiz, grina berrituz,
eta berriz piztu dugu borrokaldia.

sakoneko plazera, sakoneko onura, sakoneko gauzak!

ohean laga gaituzu azkenik,
utzirik eta sendotasunik gabe,
eta pauso arinez jaitsi zara, oso duin.
ispiluaren aurrean, hatz muturrekin,
bularrak eta hankartea iratzarri dituzu.
zure oihuekin ezin izan dugu begirik josi.

sakontasun bikoitzean eraiki dugu
isilpeko ohoragarri, errepikaezin, bakarra!

sakoneko plazera, sakoneko onura, sakoneko gauzak!



HIMENEU

fondo plaer, fondos béns, coses fondes!

*t'hem dut al llit, sinistres, amb rialles,
on hem jagut tots tres, amb gran content,
precipitats en grapats y carícies,
en goigs mortals que immortals ens semblaven.
res no era obscè i havem gaudit de tot
i no hem deixat res per a l'endemà,
cintura breu i cos llarg, cul feixuc,
les nostres mans s'han trobat força voltes,
a l'engonal, la rodonor dels pits,
adelerats, buscant amagatalls:
fins als peçons de les teues orelles
s'han retrobat les nostres llengües, àvides,
com al teu tos, d'un polsim de cabells.
t'hem penetrat per davant i darrere,
amb un cruixit o crit universal,
al mateix temps, lentament i feroç
—més lentament el de darrere, em pense,
encara que no ho puc assegurar,
car no ha constat en acta al capdavall,
com és costum en semblant rituals,
malgrat ajuts reiterats de salives
que has aplicat amb dits i mans fervents.
oh gran espant i festa del teu cos
que ha conegut una doble arribada,
entre aquells crits de dolor i plaer,
amb pas mortal y decidit alhora.
no saps per on has sentit més delit,
segons has fet constar en cert dictamen.
oh cos cremant, oh deliri creixent!
¿qui sabrà dir les coses que senties?
oh cos d'amor, així endut, simultani,
per un forat i per l'altre forat!*

fondo plaer, fondos béns, coses fondes!


*ens has vençut, car ne volies més
d'aquells esguits, tot dos contemporanis,
i no hem pogut complaure't novament,
segon has dit, assenyalant fallides,
com era que, havent-te entrat tots dos
al mateix temps i sense previ acord,
l'un ha sortit, eixut, abans que l'altre,
i tot, així, no ha estat simultani.
som aprenents i has d'ésser comprensiva.
El teu cos fou doble camp de batalla
on han lluitat molt contràries forces.
sols el teu cos ha restat vencedor
—cintura breu, alts els pits, cul feixuc,
molt novençà, encara que has parit,
per més que sols haja estat una volta
i com si res, tan cofoi el tenies—,
del brusc combat, de la irada batalla.
eixarrancats havem restat nosaltres,
menestrant tu més de festa en volies,
o és que, potser, volies la vuitava,
i amb hàbils mans, llengua concupiscent
i càlids crits com d'insistent ocell.
hem canviat de forat aleshores,
amb gran delit, renovellada fúria,
i hem reviscut novament el debat.*

fondo plaer, fondos béns, coses fondes!

*ens has deixat, darrerament, al llit,
abandonats i sense consistència,
i amb pas lleuger has davallat molt digna.
davant l'espill, amb les puntes dels dits,
t'has despertat els pit i l'engonal.
amb els teus crits no hem pogut pegar ull.*

*havem fundat, a la doble fondària,
secret august, irrepètible, únic!*

fondo plaer, fondos béns, coses fondes!



VIÇENT ANDRÉS ESTELLÉS

Zehatz ez dakigu zer gertatu zitzaion. Itsua...

No es sap ben bé què va passar-hi. L'orb...

Kale zaharretatik, ikuilu usaina lagun...

Pels vells carrers, amb una olor d'estable...

Hildakoa, kanpoan hila baitzen...

El mort, que no s'havia mort en casa...

Banan-banan altxatu ziren hildakoak...

D'un en un se n'isqueren el difunts...

Hila hilkutxaren barruan zen, eta mila...

Estava el mort dins el taüt, i feia...

Letra ordaindu beharra baitzuen...

Com que tenia que pagar la lletra...

[Azaoen su handia]

Hileta-igogailuak, metalezko kaxa mutuak...

Ascensors funerals, mudes caixes metàl·liques...

[Deserrien liburua]

goizean goiz heltzen ziren kamioiak...

de bon matí arribaven els camions que duien...

[1962ko kaiera]

Nolabaiteko bizi grina sentitu dut, labur...

He sentit, breu, un cert desig de viure...

Eztei kanta

Himeneu

[Catulusen jai amaierak]